

**EUSKAL PRESOK.** Ebakuntza «zail eta landuaren» ondoren, Bautista Barandallak asteburu txarra pasa du

# Gazte talde batek beteko du Barandalla aske uzteko grebaren bosgarren txanda

Bideko Ama Birjina erietxearen aurrean hiru orduko elkarretaratzeak egingen dituzte egunero gazteek datorren ostirala bitartean

Kristina Berasain | IRUÑEA

Euskal Herriko «adierazpen ezberdinetako» talde eragiletako sei gaztek hartu zuten atzo Bautista Barandalla aske uzteko Iruñean egingen ari den txandakako baraualdiaren lekukoa. Bosgarren astea du euskal presoari 92. artikulua aplikatzea xede duen ekimenak, eta euskal gizarteko hainbat eragiletako kideek agertutako atxikimenduen ostean, etorri da gazte-txanda.

Gose greba Iruñeko Euskal Jai gaztetxean egingo dute gazteek. «Protestaldi honen funtsa Bautista Barandalla euskal presoaren askatasuna eskatzea da, bere osasun egoera larria dela medio», esan zuten atzo baraualdia hasi aurretik.

Halaber, astean zehar egingen dituzten ekitaldien berri eman zuten ezagutzera gazteek. Ildo horretan, egunero Bideko Ama Birjina erietxearen aurrean hiru orduko elkarretaratzeak egingen dituztela aurreratu zuten, 10:00etatik 13:00ak arte.

## MANIFESTAZIOA

**Ostiralean, eguerdiko 13:00etan, manifestazioa abiatuko da Iruñeko autobus geltokitik**

Atzo, Antsoain eta Olazko Gazte Asanblearekin bildu ziren gazteak. Gaur Etxarriko presoaren egoeraren berri ematen duten esku-orriak banatuko dituzte ikastetxeetan, hala nola bihar eta ostegun goizean. Gaur arratsaldean, berriz, La Morea merkataritza gunera joanen dira.

Bien bitartean, bihar, Iruñeko Alde Zaharretik ibilaldia egiteko asmoa agertu dute.

Ostegun arratsaldean, *Torturari stop* lelopean, parodia bat antzetzuko dute Iruñeko karriketan. Jarraian esku-orriak banatuko dituzte jendartean eta gauerako ur poteoa iragarri dute gazteek. Trikitixaren soinua izanen dute lagun ibilbidean.

Ostiralean, berriz, eguerdiko 13:00etan autobus geltokitik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko deialdia egin zuten gazteek. Iluntzean enkartelada egingen dute.

Larunbatean Iruñean egingen den Iraken aurkako manifestazioari atxikimendua erakutsi diote. Igandean, amaiera gisa, bazkaria egingen dute gazteek.

## Hiru polizia gela barruan

Gaur zortzi egin zioten ebakuntzaren ondorengo egunean eraman zuten Barandalla plantako gelara. Geroztik, gela barruan hiru polizia eta kanpoan bi diueta jakinarazi zuten atzo Etxerat-eko kideek.

Polizien jarrerak azken egunotan txarrera egin duela salatu zuten plataformako ordezkariak eta horrek ez diola mesede egingo azpimarratu. «Osatzeko lasaitasuna behar du», esan zuten.

Bisitan joaten zaizkion pertsonen identifikatzeko eskatzen dietela salatu dute elkarteko ordezkariak ere.



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Joan den astean erietxearen aurrean egin elkarretaratzeetako bat.

## OSASUNA

### Aurki likidoak emanen dizkiote

Joan zen asteartean egin zioten ebakuntza «zail eta landuaren» ostean, Bautista Barandallaren osasun egoeraren berri emanen duten probak egingen ari zaizkiola aditzera eman zuten atzo Etxerat elkartek. Asteburu txarra pasatu duela ezagutarazi zuten haren neska-lagun Jose Camposek, «botaka egonda» esan zuten, baina horiek ebakuntzaren ohiko erreakzioak omen dira. Aurki edatekoak ematen hasiko zaizkio Barandallari, eta likidoak hesteetan zer nolako eragina duen erabakigarria izanen da bere osasun egoerak datozen egunotan zer aldaera hartuko duen jakiteko.

Iruñeko Bideko Ama Birjina erietxearen Zainketa Intentsibotako Unitatean (ZIU) hogeita lau ordu egin ondoren, asteazken arratsaldean bertan eraman zuten Barandalla plantako gela arrunt batera. Geroztik, Bautista Barandalla konortearikin dagoela eman zuten atzo aditzera haren neska-lagunak.

## KEPA GARROTE JAIO TERRIRA ITZULITAKO IHESLARIA

«Arazoa ez dago borroka armatuan, autodeterminazio eskubidean baizik»

Eduarne Begiristain | GASTEIZ

Kepa Garrotek, beste hamar iheslarirekin batera, bere jaioterrira bueltatzea erabaki zuen urtarrilean. *Errepresaliatuekin* izeneko jardunaldien barruan Gasteizen izan da egunotan.

■ **Hamasei urte zure jaioterriatik kanpo igaro ostean, gogorra izan da Laudiora itzultzeko erabakia hartzea?**

Oso ongi pentsatutako erabakia izan da. Jakin bagenekien erabakia gogorra izango zela, egungo egoera politikoa ere hala delako. Baina nahi dugun tokian libre bizitzeko erabakia hartu dugu eta ahalegin berri

bat egin nahi dugu gatazkari irtenbidea bilatzeko. Ikusten baitugu politikari askok hitz egin bai, baina ezer ez dutela egingen. Guk hitzetatik ekintzatarara pasatzea erabaki dugu, gure herrietara bueltatuz eta Euskal Herri libre eta baketsu bat lortzeko lanean arituz.

■ **Zer sentitu duzu etxera bueltatzean?**

Emozio asko sentitu ditut. Baina batez ere senitartekoekin eta lagunekin egotea oso berezia izan da. Kontuan izan behar da alde egin nuenean nire alaba txikiak bi urte zituela, eta orain Olatzek 18 ditu, Itsasok 21 eta Ainhoak 26. Gogorra izan da familiarekin berriz



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

ere elkartzea. Zirrargarria izan da haiek berriro ikustea. Aldaketen beldur ere banaiz, baina egindakoaz ziur nago.

■ **Euskal Herriko egoera aldatuta ikusi duzu?**

Azken 16 urte hauetan aldaketa inportantea nabaritzen da, etsaiak gauza batzuetan aurrerapausoak eman dituelako. Esan nahi baitut, botere judi-

zial guztia, komunikabideak, dena kontrolatzen duela. Demokraten lengoia erabiltzen ari da, baina funtsean faxismoa da. Justizia guztia Aznarrek ezker abertzalearen kontra duen mendeku nahietara makurtzen ari da.

■ **Jendearengan ere aldaketa sumatu duzu?**

Urteak ez dira alferrik pasa-

tzen. Aldaketa nagusia gizartean ikusi dut, kontsumismo erraldoia baitago. Eta horrek nolabait eragina izan du gizarteko hainbat sektoretan. Hala ere, ilusioa egoten jarraitzen duela uste dut.

■ **Beraz, egoerak okerrera egin duela uste duzu?**

Egun, eraso oso gogorra bada ere, horrek ere erakusten du ezker independentistak asko aurreratu duela, eta haiek arrisku hori ikusi dute. Arazoa ez dago borroka armatuan, Euskal Herriak autodeterminaziorako duen eskubidean baizik. Eta arrisku hori ikusten dutenez, Espainia eta Frantzia sekula egon den errepresio politikoa bortitzena ari dira eramatean.

■ **Zer egingo du Kepa Garrotek hemendik aurrera?**

Bizi. Jendearekin egon, lan egin eta Euskal Herriko askatasunaren eta bakearen alde ekarpenak egingo jarraitu.